

Gipuzkoan garatutako ikus-entzunezko proiektuak ekoiztera eta hedatzera bideratutako dirulaguntzak, lokal publiko batean estreinatu aurreko edozein fasetan

ESKATZAILEAK

- ✓ Pertsona fisiko eta juridikoak; enpresa pribatuak, ikus-entzunezko proiektuak Gipuzkoan zuzenean garatzen badituzte.
- ✓ Ikus-entzunezko lantzat hartuko da 60 minutu baino gehiagoko iraupena duena.
- ✓ Ekonomia Jardueraren Gaineko Zergan dagokion atalean izena emanda egotea. Pertsona juridikoa denean, bere helburu edo gizarte xedea ikus-entzunezko jarduerekin zerikusia duena izatea.

AURKEZTU BEHARREKOA

- (Derrigorrezkoa) [Proiektuaren laburpena eta aurrekontua](#)
- (Derrigorrezkoa) Identifikazio fiskaleko kodea edo zenbakia (IFK, IFZ)
- (Aukerazkoa) Diru laguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txostena
- (Aukerazkoa) Banku kontuaren
- (Aukerazkoa) Enpresen kasuan, Merkataritza erregistroko inskripzioa

KANPO GELDITZEN DIRA

- a) Dirulaguntza izenduna xedatua dutenak
- b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste dirulaguntza deialdietan egokiago sar daitezkeenak edo espresuki sartuta daudenak
- c) Proiektuaren fase berdinerako aurrez Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaren bat jaso dutenak.
- d) 2007ko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 9.2 artikulua araberak (Zinemaren legea), X sailkapena duten filmei buruzko proiektuak

BALDINTZAK

- ✓ Lokal publiko batean proiektzio komertziala izatea helburu duten ikus-entzunezko lanak
- ✓ Lotura esanguratsua eta nabarmena izatea Gipuzkoako Lurralde Historikoarekin, bai filmaketa-lekuari dagokionez, bai gaiei, talde tekniko eta artistikoen jatorriari edo proiektuaren beste osagai batzuei dagokienez.
- ✓ Ekonomikoki bideragarria izan behar du
- ✓ Jarduerak deialdia argitaratzen den egunetik, deialdiak ezartzen duen urte naturaleko abenduaren 31ra bitartean egitea
- ✓ Ekoizpenak epe hori gainditzen duen proiektuetan, deialdiari dagokion jarduera baino ez da eskatu beharko, eta gauzatze fase gisa identifikatu beharko da.
- ✓ Eskatzaile bakoitzak ekoizpen proiektu bat baino gehiago aurkeztu dezake, baina baloraziorik handiena lortzen duenak bakarrik jasoko du laguntza.
- ✓ Ikus-entzunezko proiektu bera ezin izango du eskatzaile batek baino gehiagok aurkeztu.

IRIZPIDEA	PUNTUAK
1. FASEA	60 puntu
Interes orokorra Gipuzkoako Ikus-entzunezkoen esparruan	15
Proposamenaren kalitatea, originaltasuna eta sormena	10
Gipuzkoako kokalekuak	10
Gipuzkoako zuzendaritza eta equipo tekniko eta artistikoa	10
Euskararen erabilera jatorrizko bertsoak	15
2. FASEA	40 puntu
Hizkuntza berritzaileak eta ikuspegi berriak	10
Emakumeen parte-hartzea produkzio eta zuzendaritza arduetan, talde tekniko eta artistikoetan	10
Aurrekontua proposatutako proiektuari egokitzea	10
Proiektua finantziatzeko plana	10

Dirulaguntzak emateko proposamenean soilik sartuko dira lehen atalean gutxienez 30 eta orotara gutxienez 50 puntuko balorazioa izan duten eskabideak.

DIRU KOPURUA

Diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen %70a

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren %30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

EPEAK

- **ESKAERAK AURKEZTEKO** Azken eguna: 2023-05-02
- **ZURIKETA AURKEZTEKO**
Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da
- **ORDAINKETA**
Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 emateko ebazpenarekin batera eta gainerako %40a diruz lagundutako jarduera amaitu ostean

TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>). Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hau K bulegoak egindako laburpena da.

Araudi aplikagarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da eta komeni da arretaz irakurtzea eskaera egin baino lehen:

- **Oinarri orokorrak** [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 78.zk., 2021-04-29](#) (1-11 or.)
- **Oinarri berariazkoak** [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 70 zk., 2022-04-12](#) (5-8 or.)
- **2023ko Deialdia** [Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 72 zkia, 2023-04-17](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaera auzkezterakoan izan ditzakezun zalantzak argitzen

(+34) 943 113 343 / kbulegoa@gipuzkoa.eus / www.kbulegoa.eus

Convento de Santa Teresa

Elbira Zipitria bidea 1

20003 Donostia / San Sebastián

Astelehenetik ostiralera: 09:00-14:00 *

* Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.

K
B
U
L
E
G
O
A

